



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



**Asteazkena
2010-02-03**

VIIIURTEA 1919. ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

MARTXELO OTAMENDI 'EGUNKARIA'-REN AURKAKO EPAIKETAN AUZIPETUA

«Ziur nago 'Egin'-ekoak ere ez direla ETA-koak, baina kartzelan daude»

AUZIA Epaimahaiak adierazi duenaren arabera 10-15 egunen buruan emango dute jakitera epaia

MOBILIZAZIOAK Europako parlamentura joan da Martxelo Otamendi «atxikimendua jasotzera» 2



Artzubi inguruan, Larraulera doan bidearen ondoan, eraikiko dira igerileku irekiak. ENERITZ MAIZ

IGERILEKU IREKIEN ETA ESKOLAREN OBRAK ATE JOKA

ASTEASU Udaren erdi alderako igerilekuak erabilgarri izango direla espero du Udalak; Eskola handitzearen lanak urtebetez luzatuko dira 5

Herri Zentroaren lanak egiten hasi daitezke datorren astetik aurrera

AMEZKETA Obegisa enpresa aukeratu du Etorlurrek proiektuaren obra egiteko 4

Leidorrera iritsiko dira Xabinaitorren abenturak etzi

TOLOSA Gorringo taldearen antzezlanean parte hartzen dute eskualdeko Mikel Pagadizabal, Anjel Alkain eta Ainere Tolosa aktoreek 3

www.hirukide.org

KALITATEKO HEZKUNTZA TOLOSAN

TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

Samarie 0

ORDXE TOLOSA

Euskaratik eta Euskaraz
Matrikula epoa: otsailaren 1etik 12ra

E Elkarrizketa

MARTXELO OTAMENDI 'Egunkaria'-ren aurkako epaiketari auzipetua

«Aho zapore onarekin geratu gara, baina epaia izan arte ezin da jakin»

'Egunkaria auzia'

Herenegun bukatu zen epaiketa, eta egun batzuren ostean jakingo dute epaia; ordura arte ez direla lasai egongo azaldu du tolosarrak.

INIGO TERRADILLOS

Herenegun bukatu zen Madrilen, Espainiako Auzitegi Nazionalan, *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa, eta atzo arratsaldean itzuli ziren Euskal Herrira bost auzipetuak, Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga. Egun batzuren ostean etorriko den sententziaren zain geratzen dira orain. Martxelo Otamendi tolosarrak azaldu bezala, «epaiketaren ibilbidea ikusi eta gero, bostak absolbituko gaituztela dirudien arren, ez gaude lasai eta itxaron beharra dago, ezin baita jakin ezer epaia izan arte».

Bukatu da epaiketa, eta orain epailearen zain zaudete. Zer balantze egiten duzue?

Herenegun, epaiketaren azken egunean, ikusi zen herri akusazioek euren argudioei etsi zieten, eta fiskalak ere berdin egin zuen. Fiskalak oso alegatu interesgarria egin zuen gure alde, Guardia Zibilarren perituen txostena bertan behar utzi nahian, eta ez dutela ezer frogatzen adieraziz. Guardia Zibilarren perituen txostena bertan behar utzi nahian, eta ez dutela ezer frogatzen adieraziz. Guardia Zibilarren perituen txostena bertan behar utzi nahian, eta ez dutela ezer frogatzen adieraziz. Guardia Zibilarren perituen txostena bertan behar utzi nahian, eta ez dutela ezer frogatzen adieraziz.

Lasai al zaudete?

Orain itxaron egin behar dugu, baina ez gara lasai geratuko sententzia ikusi arte. Egin beharrekoak egin ditugu zazpi urte hauetan,



I. TERRADILLOS

gure abokatuek ere bai, eta gure zorienerako, fiskalak ere bai.

Itxura guztiaren arabera, zuen aldekoa beharko luke epaia.

Akusazioek ez zuten ezer frogatu. Eta Espainiako prentsak epaiketa-

Oso interesgarria izan da fiskalak gure alde eginiko alegatua, akusazioei ezer frogatzen ez dela esanez

ren berri indar gutxiarekin eman duela esan daiteke, ez dute Guardia Zibilarren eta akusazio partikularraren bertsioen alde egin. Elementu guztiak gure aldekoak dira. Askotan esan dugu ez dela ohikoa euskal auzi batean fiskalak ez akusatzea, are gehiago, ez da ohikoa akusatuei ez galdetzea. Guri ez zi-

gun galderarik egin fiskalak, aitzitik, Guardia Zibilarren perituek ederkiz estutu zituen. Beraz, elementu hauekin guztiakin, eta ikusita epaiketa nola burutu den, guk beste irtenbiderik ez dugu espero eta onartuko, absoluzioa alegia. Baina, ez da lehendabiziko aldia euskal auzi batean Auzitegi Nazionaletik absoluzioaren konbentzimenduarekin atera eta gero egurren jasotzea. Beraz, bostentzat absoluzioa etorriko dela dirudien arren, itxaron beharra dago.

Zer gertatuko da epaia zuen aldekoa bada?

Absolbituta geratuko ginatke, eta ondoren, ziurrekin herri akusazioak helegitea jarriko luke Espainiako Auzitegi Gorenean eta azken erabakia ez litzateke etorriko Gorenaren epaia jakin arte. Hori urte

batzutan luzaliteke. Dena den, Auzitegi Nazionalaren aldetik ondo argudiatutako absoluzioa sendoa bada, Gorenak zailago du atzera botatzea. Baina, azken erabakia helegitearen ondoren etorriko li-

Ez da lehen aldia euskal auzi batean absoluzioaren konbentzimendua izan eta gero, egurren jasotzea

tzateke. Horregatik, garrantzitsua da orain epaia sendoa izatea.

Eta epaia zuen aurkako bada?

Gure aurkako sententzia badago kartzelara joango ginatke. Ez luke atzera bueltarik izango, eta gainera urte askotarako litzateke. Ez da txantxa, izan ere, ETako zuzendaritzako kide izatea egotzen

digute. 14 urte eskatzen dute, gerta liteke gutxiago jartzea, baina 8-12 urte behintzat izango lirateke.

Baina fiskalak ere esan du akusazioek esanikoak ez direla frogatu. Bai, baina aurretik ere gertatu izan dira horrelakoak euskal auzietan, hau da, benetan ez frogatu, eta epaia kontrako izatea. Esaterako, ni konbentzitu nago *Egin*-eko Teresa Toda, Jabier Salutregi, Jexux Mari Zalakain edota Jose Luis Elcoro, besteen artean, ez direla ETakoak, baina kartzelan daude ETako kide izateagatik edo ETari laguntzeagatik.

Komunikabideek auziaren inguruan eginiko jarraipena ere zuen aldekoa izan da.

Aurreko auzi batzuetan, ez bezala, distantzi pixka batekin jarraitu dute. Konbentzimendu gutxiarekin Guardia Zibilarren txostenekin, eta akusazioek ez dute lortu normalean beligerantea den Espainiako prentsa haien alde jartzea. Hori gure aldekoa izan da, behintzat iriztzi publikoa ez dute gure kontra jarri.

Epaia iritsi bitartean zer egingo duzue?

Lanean egongo naiz, epaiketak lanordua asko kendu baitzikigu. Bitartean mobilizazioek jarraituko dute; esaterako, Europako parlamentura joango naiz parlamentarien atxikimendua jasotzera.

Gastua handia izan al da?

Bai, oso handia. Oso gustura gaude herritarren aldetik egin diren kampainen bidez jasotakoagatik, eta eskertu beharra dago. Baina, gas-tua oso handia izan da, eta horri aurre egin beharko diogu.

Hilaren 20an izango da Egunkaria Eguna.

Egunkaria jaio zenean festa bat egin genuen *Egunkaria* bazetorre-lajendeari esateko, eta orain, berri, *Egunkaria* itxi zigutenez, harren erregabetasuna aldarrikatzeko egingo dugu festa. Jendea animatu nahi dut parte hartzera. Ea denon artean lortzen dugun hau behingoz gelditzea.

Herritarrek ere garrantzia izan dute urte hauetan guztietan.

Bai, eta guztien elkarratasuna eskertu beharra daukagu, zazpi urte hauetan jasotako laguntzarenatik eta *Egunkaria* jaio zenean eta bizirik iraun zuen bitartean eman zuten babasarengatik.

Epaia egun batzuren buruan

ERREDAKZIOA

Abenduaren 15ean hasi zen Espainiako Auzitegi Nazionalan, Madrilen, *Egunkaria*-ren aurkako epaiketa, eta herenegun gaueko hamarretan bukatu zen epaiketako azkeneko saioa, seigarrena. Bost auzipetuak —Joan Mari Torrealda, Iñaki Uri, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi eta Xabier Oleaga— «aho zapore ona-

rekin» geratu dira, Miguel Angel Carballo fiskalak eta defentsak euren absoluzioa eskatu zutelako epaimahaiaren aurrean ondorioak irakurtzean, auzipetuen aurkako frogarik ez dagoela irizita. Aldiz, Dignidad y Justicia eta AVT herri akusazioek 12 eta 14 urte arteko kartzela zigor eskaerak egin dituzte auzipetuentzako, ETArekin lotura izan zutelakoan.

2003ko otsailaren 20an itxi zuen Guardia Zibilar *Egunkaria*, Juan del Olmo Auzitegi Nazionalako epailearen aginduz, kazetak ETArekin lotura izan zutelakoan. Javier Gomez Bermudez, Ramon Saez Valcarcel eta Manuela Fernandez epaileek osatzen dute auziko epaimahaia. Adierazi dutenaren arabera, 10-15 egunen buruan emango dute jakitera epaia.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Laburrak

Udalaren Ohiko Osoko Bilkura izango da gaur

VILLABONA • Udalak Ohiko Osoko Bilkura egingo du gaur 20:00etatik aurrera. Bertan ondorengo gaiak jorratuko dituzte besteak beste: dedikazio eskusiboz alkatetza kargua betetzeagatik 2010 ekitaldiari dagokion soldata aldatzea; Udalaren izaera pertsonaleko datuen fitxategiei dagokienez seurtasun-maila finkatzea; Kutzan Udala ordezkatuko duen Kontseilari Orokorra eta horren ordezkoa izendatzea.

Musika Eskolako ikasleen kontzertua gaur, Leidorren

TOLOSA • Udal Musika Eskolako ikasleek Kaldereroetako kontzertua eskainiko dute gaur arratsaldean. 19:30ean izango da emanaldia Leidor antzokian. Bertan ondoko taldeek parte hartuko dute: ikasleen banda, akordeoi taldea, biolin orkestra eta abesbatza. Kontzertuan, inauteri eta kalderero doinuak entzungo dira. Berrikuntza gisa, aurten, akordeoi taldeak eta biolin taldeak, lehenengo aldiz aterako dira kalderero abes-tiak eskaintzera.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarantz autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Irramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474



Emakume eta aldi berean enpresari

TOLOSA • Andere Nahia Iparraldeko emakume enpresarien taldeak bere esperientzien berri eman zuen atzo Tolosan. 40 lagun inguru elkartu ziren udaletxeko Batzar Aretoan, ia denak emakumeak. 2002. urtean sortu zen elkarteak eta euren enpresa sortu duten edota sortzen ari diren emakumeek osatzen dute. Bateratzeko modua norbere enplegua sortzea dela konturatu diren emakume taldea da hau. Une honetan 50 kide inguru dira baina zortzi urte hauetan zehar 200 lagun inguru igaro dira. Tolosaldeko egoeraren berri ere jakin nahi izan zuten atzokoan e.e.

Xabinaitor euskal heroia tolosarrak salbatzera etorriko da laster

Tolosa » Gorringo antzerki taldeak bere azken lana aurkeztuko du etzi; Leidor antzokian izango da emanaldia, 20:30ean.

ERREDAKZIOA

EGA agiria duen lehen euskal heroia, Xabinaitor, Tolosa salbatzera etorriko da aste honetan. Gorringo antzerki taldekoek beraien azken emanaldia aurkeztuko dute Leidor antzokian, etzi. 20:30ean hasiko da ikuskizuna, eta jada sarrearak erosi daitezke Kutzako kamaletan eta antzokiko leihatilan, hamabi euroren truke.

Patxi Gallegoren komikiak ditu oinarri Anartz Zuazuk zuzendutako antzezlanak, neska edo paxpolin euskaldunak salbatzeko superbotereak dituela konturatuko den mutilaren istorio umoretsua da hau. Mikel Pagadizabal billabonatarra da Xabineitor protagonistak. ETBn *Wazemank* saioa egiten zuen taldeak sortu du euskal superheroi xelebre hau. Anjel Alkain, bada, ertzainaren azalean sartu da, super heroien atzetik doan poliziaren barrenean. Berarekin batera, laguntzaile bat badu, lan komikoekin bat, fundamentua aspaldian galdutako dohaina duen kamarada. Ainere Tolosa da paxpolinetako bat.

Zuazuaren hitzetan, «historia poliziako-erotikoa da, kritika sozial pixka batekin». Hori bai, umorea du osagai nagusia, barre egiteko lana egin nahi izan baitu Gorringo antzerki taldeak. Villabonako Gurean estreinatutako lana 2009ko azaroan, eta ordutik, hainbat eta hainbat antzoki eta eszenatokitatik igaro dira, denetan ere arrakasta lortuz



Mikel Pagadizabal da protagonista eta berarekin izango dira eskualdeko aktore ezagun ugari. HITZA

Barreak eragiten «onenak» Gorringo taldeak arrakasta handia izan zuen *Kutsidazu bidea*, *Ixabel* lanaren antzerkirako bertsioarekin. Oraingoan, nobela bat moldatu beharrean, Gallegoren komikia taularatu dute. Betiere, umorea ardatz hartzen du taldeak.

Komikian oinarrituta

Xabinaitor komiki oso umoretsua da. Komikia; fikziozkoa, umorez-

koa eta sexuskoa da. Fikziozkoa da, pertsona batek bakarrik neska bat usaintzean jakin baitezake emakume hura euskalduna den ala ez. Honez gain neska bat usaintzean, ea neska horrek euskaraz hitz egiten dakien ere asmatu dezake.

Umorezkoa da, Xabinaitorri gertatzen zaizkion gauzak oso berrigarriak direlako. Sexuzkoa dela esaten da berriz, ia liburu guztia sexuaz ari baita murrizki nahiko erotikoak aurkitu baitaitezke. Sexuaren ukitu umoretsu bat gehiago ematen dio komikiari.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Lan bila.** Gizonezko bat lan bila dabil: pertsona helduak zaintzen, baserriko lanak egiten edota beste edozertan lan egiteko prest dago bera. Interesa duenak deitu dezala telefono zenbaki honetara: 679 80 38 70.

GALDUTAKOAK

■ **Katea.** Amezketako Zazpi-Itturri inguruan urrezko katea bilatu da duela egun batzuk. J. Z. inzialak

idatziak zituen bertan. Aurkitu duenarekin harrermanetan jartzeko deitu ondorengo telefono zenbakira: 678 47 66 12.

ESKAITZA

■ **Bigi garbitasunak.** Bigi garbitasunak, alfonbrak, etxeak, bulegoak eta abar garbitzeko prest. Deitu inongo konpromisorik gabe. Telefono zenbakiak: 638 94 46 04 (Gurutze) eta 695 70 82 71 (Belen).

Herri Zentroa egiteko lanak datorren astean hasi ahalko dira

Amezketak » Etorlurrek Obegisa enpresa aukeratu du proiektua gauzatzeko eta astelehenean sinatuko dute zuinketa akta.

ERREDAKZIOA

Pernando Amezketarra Herri Zentroa egiteko lanak aurki hasiko dira. Datorren astelehenean zuinketa akta sinatuko da, hau da, obra hasi daitekeela adierazten duen agiria. Etorlur enpresak kudeatzen du obra eta honek Obegisa enpresa aukeratu du lanak egiteko. Enpresa honek 700.000 euroko aurrekontua aurkeztu zuen eta 24 asteko epean egingo duela azaldu zuen.

Beraz, Aierbenea etxea eraldatzen hasiko dira denbora gutxira Herri zentroan bihurtzeko. Proiektuak Foru Aldundiaren Landagipuzkoa 32ren eta Eusko Jaurlaritzaren diru laguntza jasoko du. Guztira 922.000 euroko aurrekontua du obrak.

Enplegu Zuzendaritzari eskaera

Herri Zentroko obraren esleipenaren berri urtarillaren 28ko osoko bilkuran eman zen. Bertan hainbat erabaki hartu ziren ere,



Aierbenea etxea Herri Zentroa bihurtzeko lanak aurki hasiko dira. I. GARCIA

tartean, Estatuko Enplegu Zuzendaritzak langabetuak kontratatzeko udalei ematen dien diru laguntzen ingurukoa.

Amezketako Udalak hiru proiektuentzako egin du eskaria: herriko artxibo historikoaren digitalizazioa, udalerrian erabilpen publikoan duten hirigintza arloko elementuen hobekuntza eta moldaketa, eta herriko ur sarearen ur galerak bilatu, konpondu eta legez

kanpo dagoena detektatu eta erregulatu.

Iaz hiru proiektu horientzako eskaria egin zuten eta Enplegu Zuzendaritzak ur sarearen proiekturako langile bat hiru hilabeterako onartu zuen bakarrik. Oraingoan, ur sarearen lanak egiteko bi langile sei hilabeterako, hirigintza arloko elementuen hobekuntza egiteko beste bi langile sei hilabeterako eta artxiboaren digitalizazioa egiteko

langile bat hamabi hilabeterako izateko eskaria egin du Udalak. Enplegu Zuzendaritzak hiru hilabete inguruko epean emango du onartutakoaren berri.

Beste gai bat Loila baserriaren ondoan izandako luizia konpontzearen aurrekontua onartzea izan zen. Oruezbalek aurkeztutako aurrekontua 6.000 euro inguruko izan da eta obraberari ematea erabaki zuten.

Ugarteko espaloia

Ugarteko espaloian inguruan ere aritu ziren osoko bilkuran. Auzoko elkarte aurrean espaloia eginez gero, bertako aparkalekuak galduko direnez, elkartearen aurrean dagoen itxituraren barrualdetik pasabidea izatea aurreikusi du Udalak. Horren inguruan ugartearreri galdetzea erabaki zen eta hauek aparkaleku beharra «larria dela» azaldu zuten. Beraz, pasabidea itxituraren barrualdetik egitea hobetsi da.

Beste gai Otize bailarara doan bidearen konponketa ordaintzearena izan zen. Abaltzisketako Udalak egin du konponketa, Otizera joateko herri horretako Olando bailararik joaten baita. Abaltzisketako Udalak faktura pasa dio Amezketari. Bi bailaretako bizi-tzen arabera, 10 Abaltzisketak eta 3 Amezketak, 11.870 euro ordaintzea dagokio Amezketari. Ordainketa hori egitea onartu zen.

Abaltzisketarekin lotura duen beste gai bat ere izan zuten mintzagai osoko bilkuran. Urzabalgo uraren inguruan Abaltzisketarekin Erabiltzaileen Mankomunitatea osatzea onartu zuen. Horren arabera, Amezketak uraren %77 aizango du eta Abaltzisketak %23a.

Beste gai bat Apatxe baserriaren inguruan izan zen. 50 herritarrek salaketa jarri diote baserriaren jabeei, bertako behiek «baratzetan eragiten dituzten kalteak eta bideetan arriskua sortzen dutela» esanez. Udalak salaketa hori Gipuzkoako Foru Aldundira bideratu du.

Abizenak euskal grafiaz jartzeko deialdia


Euskara » UEMAK 'Guk abizena, zuk?' kanpaina bultzatu du abizenak modu ofizialean euskaraz jarri nahi dituztenentzat.

ERREDAKZIOA

UEMAK bultzatuta, *Guk abizena, zuk?* kanpaina jarri da martxan Tolosaldeko UEMAKo herrietan, euskal abizenak modu ofizialean eta toki guztietan euskaraz izan nahi dituztenentzat. Hartara, Arteche, Aguirre, Aurrecochea, Echenique edo Echeverria aldatu eta Artetxe, Agirre, Aurrekoetxea, Etxenike edo Etxeberrira bihurtzeko aukera izango dute interesatuek.

Mankomunitatetik azaltzen dutenez, «edozein herritako telefono-aurkibidea hartu besterik ez dago ikusteko zenbat eta zenbat euskal abizen dauden oraindik gaztelaniazko grafiarekin: ch, c, qu eta gui ugari dago oraindik, beste garai baten arrasto moduan».

UEMAK Zuzendaritza Batzordearen ustez, «hizkuntza batetako abizenak beste hizkuntza ba-



UEMA abizenak euskal grafiaz jartzeko egiten ari den kanpainaren kartela. HITZA

teen idaztea ez da normala». Eki-menaren helburua normalizazioa besterik ez dela gaineratu dute kanpainaren sustatzaileek, eta gogorazti dute hizkuntza normalizatueta ez dela horrelakorik gertatzen: «Ingelesek Shakespeare idazten dute, eta ez Xexpir, eta espainolek Cervantes idazten dute eta ez Zerbantes. Nor gara euskal-dunak horiek berridazten haste-

ko? Aguirre edo Echeverria abizenak baldin badira, zergatik ez Agirre eta Etxeberrira idatzi, euskaraz? Ingelesak ala espainolak baino gutxiago ote gara, ba?».

Eskualdeko UEMAKo herrietan, etxe guztietara helarazi dute abizenak euskalduntzeko kanpaina; izan ere, neguko UEMAKen *Berripaperan* tarte bat eskaini zaio kanpainari, eta herritarrek beraien

postontzian jasotzen dute *Berripaperan*. Horrez gain, toki esanguratsuetan postalak jarri dituzte abizenak euskalduntzeko jarraibideekin: udaletxeetan, kultur etxeetan, liburutegietan...

UEMAK jakinarazi duenez, Tolosaldean, UEMAtik kanpoko herrietan ere «gauza bera egin behar dela abizenak euskal grafiara moldatzeko», eta dei egiten die euskal-

» PAUSOAK

Abizena euskal grafiara moldatu nahi dutenek hiru pauso hauek eman behar dituzte:

- Erregistro zibilera edo bake epaitegira joan eta esan abizena euskal grafiatze ipini nahi dela.
- Han emango duten eskaera orria datuekin bete.
- Agiri hauek eraman: nortasun agirirean fotokopia (adinez nagusia ez denak gurasoarena ere behar du); hitzez hitzeko jaiotza ziurtagiria; errolda agiria; ezkontuta egonez gero edo seme-alabarik izanez gero, familia liburua; 16 urtetik gorako seme-alabarik izanez gero, seme-alabaren nortasun agirirean fotokopia.

Herririk

■ Kanpainan parte hartzen dutenak: Aduna, Iruña, Anoeta, Euduain, Belauntza, Leaburu-Txarama, Gaztela, Orea, Ikaztegieta, Altxo, Orendain, Baliarrain, Alegia eta Amezketa.

dun guztiei «bere izanarekin koherente izan» eta abizenak euskalduntzeko.

Igerilekua eta eskola handitzeko obrak hastear

Azpiegiturak » Eskolako lanak 12 hilabetez luzatuko dira eta igerilekukoak abuztura arte. Udala bi obra hauekin udaberrian hasiko da.

ENERITZ MAIZ

Udaberri aldera Asteasun obra ezberdinak martxan hasiko dira. Alde batetik, eskola handitzeko lanak eta bestetik, herritarrek hainbeste aldiz eskatu dituzten igerileku irekiak egingo ditu Udalak. Guztia prest dute eta aste honetan bertan egingo duten Udalbatzan, bi obra hauek zein enpresek egingo dituzten onartuko dute Iñaki Amenabar alkatearen hitzetan.

Obra garrantzitsu hauez gain, beste hainbat obra gauzatu edota gauzatzen ari da Asteasuko Udala.

Eskola handitzeko eta egokitze lanak hastear

Herrian etxe berriak egitearekin batera, biztanleriak ere gora egiten du eta herri askotan gertatzen den moduan, Asteasun ere, Pello Errota Eskola txiki geratu da. Alde batetik, Eskola handitzeko eraikin berria egingo dute eta bestetik, gaur egungoa egokituko dute.

«Haur kopurua handitzen ari zenez, gela gehiago behar zirela ikusi genuen. Beraz, 2006. urtean, arau ordezkatzailerik hastearrekin batera, Eskola handitzearen beharra aurreikusten hasi ginen», dio Amenabarrek. «Arazo hau zertorrela eta Delegaritzarekin ere harremanetan jarri ginen» eta azkenean, «Eskolaren ondoko bi lurjabeekin hitzarmen bat sinatu ge-

nuen eta horrela eraikin berri bat egingo dugu» gaineratu du.

Gaur egun, Haurreskola eta Pello Errota eskola, hiru eraikin ezberdinetan banatuta aurkitzen dira. Jada eraikin guztiak txiki geratuta daude, baita jangela ere. «0-2 eraikin batean, 2tik 6ra beste batean eta 6tik 12rakoak beste batean daude eta eraikin guztiak errepideez sakabanatuak» azaldu digu. Berrriarekin ordea, 0-12 urte arteko haur guztiak eremu berdinean egingo dira.

Lehen hezkuntzako eraikina birmoldatu egingo dute «sukaldea, jangela, aldagelak, komunak, irakaslearen gela egokitu egingo dira eta eraikin honi lotuta, L forman eraikin berria egingo da». Eraikin

Gaur egungo Eskolaren eraikina birmoldatu eta berria eraikiko dute, Haurreskola barneratuz

berriak ere bi solairu izango ditu «haurreskola eta 6 urte bitarteko haurrentzako gelak egingo dira eta bakoitzak bere jolas lekua izango du. Atzeko aldean dagoen frontoira eta gimnasioa aretora joateko, igarobide bat egingo da eta eraikin guztiak lotuta geratuko dira. Era berean irisgarritasun baldintzeta-



12 hilabeteetan eskola handitzeko obrak bukatuta egotea espero dute. E. MAIZ

ra egokitua geratuko da guztia» azaldu digu Iñaki Amenabar alkateak.

2009. urteko apirilean Asteasuko Udalak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Departamentuarekin kolaborazio hitzarmena sinatu zuen eta lanen kostuak, Udala eta Eusko Jaurlaritzaren artean ordainduko dira. Udalak, 813.319 euro jarri beharko ditu, besteak beste, Hezkuntzak, haurreskolak ez dituelako beregain hartzen, eta Eusko jaurlaritzak, kostuaren %63a jarri beharko du, hau da, 1.384.841 euro.

Bestalde, Udalaren esku geratu zen bai proiektua egitea eta baita lehiaketara ateratzea ere. Proiektua udaran bukatu eta abenduan lehiaketara aterazuten. 19 enpresa aurkeztu dira obra hauek egiteko eta «jada kontratazio mahaiaik aztertutako 19 proposamenak eta aste honetan bertan egiteko dugu udalbatza enpresari esleitu ahal izateko eta martxoan erdi alderako obrak hastea espero dugu». Eraikin berria ikasturtean zehar egingo dute eta gaur egungo eraikinaren birmoldaketa berri, udako oporretan gauzatu beharko dute.

Behin obra guztiak bukatuta, gaur egun Haurreskola eta 6 urte

bitarteko haurren eraikinak dau den lekuan, bi lurjabeekin adostu bezala, etxeak eraikiko dituzte «aparkalekuak eta jolaslekua egin

Eskola handitzea 2.198.160 euro kostokoa da eta Eusko Jaurlaritzak %63a ordainduko du

ahal izateko lurra behar genituen eta lur horien truke aukera hori emango zaie. Udalak ere badu lur zatibat eta eskolaren zatibat finantzatu ahal izateko erabiliko da».

Udaren erdi alderako igerilekua izango dute

Urteroko eskaera izanda Asteasun igerileku baten beharra «uda iristean, herritarrek beti Aiako igerilekura edo orain Hernanikora joan ohi dira eta herritarren artean igerileku irekiak izatearen nahia aspaldikoa da. Arau ordezkatzailerak

egin genituen kokaleku bat aurreikusitua genuen eta urte onak izan zirenetan, diru bat aurreztu eta gorde genuen bi obra nagusi hauek batera aterazuten lehiaketara eta kasu honetan 14 enpresa aurkeztu dira. Proiektu osoaren aurrekontuan 1.373.700 eurokoa da eta sei hilabeteetan eraikiko dituzte, hau da, udaren bigarren zatirako bukatua egotea espero da.

Igerileku irekiak, Larraulgo errepidearen eta Usarrabi errekararen artean kokatuko dira, Artzubi inguruan. 285 m² ko igerileku handia eta 57 m² ko igerileku txikia izango ditu. Inguruan 2.000 metro karratuko zelaiak izango du eta taberna, aldagelak, komunak, biltegia eta sorosleentzako gela izango dituen eraikina.

Zapateroren bigarren laguntza baliatuz, bidegorria igerilekuraino luzatuko dute eta herri gunera paratzeko bigarren igarobide bat ere egingo dute.



Hondatutako espaloia konpontzen

ASTEASU » Orain egiten ari diren obra txikiaketa bat, Kutxa eta farmazia inguruan dagoen espaloia konpontzea izan da. Udaletik, hilabete honetan bertan

bukatzea espero dute. Egoera txarrean aurkitzen zen eta herritarrek «estropazu» ere egiten zuten. Diputatziotik laguntza jaso du Udalak hau konpontzeko. E. MAIZ



Igerilekuak, Larraulgo bidea eta Artubi errekararen artean egingo dituzte. E. MAIZ

Ion Goikoetxea 'Boli' mendizalea Aconcaguara igotzen saiatuko da

Gaztelu » Josu Feijooekin batera joan da Argentinara; Inauterietarako bueltan izatea espero dute.

ERREDAKZIOA

Ion Goikoetxea *Boli* mendizalea Argentinan dago, Aconcagua mendira igotzeko helburuz. Pasa den urtarrilaren 22an bidaiatu zuen Hego Ameriketako herrialdera eta Inauterietarako bueltan izatea aurreikusten du gazteluarrik, ezustekorik egon ezean.

Gaztelukoak Josu Feijoo gazteiztarraren espedizioarekin batera egingo du saiakera, *7 kontinente 7 gailur* proiektuari amaiera emateko asmoz.

Aconcagua mendiaren ezaugarriak

Aconcagua Andeetako mendirik altuena da, Amerikako altuena eta Asiatik kanpo dagoen munduko mendirik altuena. Argentinan kokatuta dago, Mendozako probintzian.

6.959 metroko altuera du mendia. Hainbat glaziar ditu Aconcagua, garrantzitsuenak Poloniarra eta Ingelesa direlarik. Aconcagua parke naturalaren barnean kokatuta dago.

Laburrak

Osasun emozionala hizpide etzi Gaztainondon

BERASTEGI » Aldin Kirol eta Kultur Elkarteak hitzaldia antolatu du etzirako, ostirala. Hizlari lanetan Aitziber Gine Mujika psikologoa eta psikoterapeuta ariko da, Gaztainondoko jaiak antolatzen, 20:30etik aurrera. Osasun emozionalaz jardungo du Ginek, *Osasun emozionala nola sentitu* izenburupean. Aldin Elkartetik herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte bertara.

Kaldereroen festa antolatu du etzirako Hauspoak

IBARRA » Etxirako, ostiralerako, Hauspoa Kultur Elkarteak kaldereroen festa antolatu du. Hain zuzen ere, 18:00etan abiatuko dira ijitoz jantzita eta zartagina eskuetan Ibarroko San Bartolome plazatik. «Festa giroa» ez dela faltako ziurtatu dute elkartetik; horregatik, Hauspoa Kultur Elkartetik herritar guztiak animatu nahi dituzte bertan parte hartzera. «Haurrek, gazteek zein helduek izango dute tokia, adin mugarik gabe», gaineratu dute.

«Hamaikagarrenarentzat prest»

Ibarra » Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoan emanaldia izan da arrakastatsua Uzturpe Ikastolaren Kultur Astean.

NOELIA LATABURU

Hamargarrena ere amaitu da eta pozik daude Uzturpe Ikastolan Kultur Asteak eman duenarekin. Bertako zuzendariak, Jokin Zugastik, adierazi duenez, «oro har oso arrakastatsua izan dela esan daiteke, ekitaldi guztietan jende askok hartu du parte». Pena bakarra dute Uzturpen, «graffitiaren harira antolatu genuen eguna bertan behera geratu izana». Hala ere, ikasturtea amaitu baino lehen «egingo dugu», gogoratu du Zugastik. Hain zuzen, eguraldi txar

rrak oztopatu zuen ekimena. «Egin ez genuen arren, aurreko larunbatean horma margotzeko etorri ziren boluntarioen lana eskertu nahi nuke, 15 guraso eta 8 irakasle gerturatu baitzirenen».

Kultur Astea, egunez egun

Pasa den urtarrilaren 25ean ekin zioten Kultur Asteari, ate irekien jardunaldiarekin. 20 guraso inguru hurbildu ziren Uzturperaino. Asteartean lehen hitzaldiaren txanda izan zen. Teresa de Olabarría optometristak *Ikusmenaren garrantzia hezkuntzaren prozesuan* hitzaldia eskaini zuen. «Bertan 25 lagun inguru bildu ginen; oso interesgarria izan zen eskolatan lantzen duenarekin lotu baitzuten hitzaldia».

Asteazkenean eztanda heldu zen Ibarrra. «Hotzaren aurrean



Porrotx eta Mari Motots Ibarra.n.n.l.

ederki epeldu gintuzten Pirritx, Porrotx eta Mari Motots pailazoek». Hain zuzen, 680 lagunek ikusi zuten pailazoan *Irrien lagunak* ikuskizuna, Belabietan.

Ostegunean, 35 entzule hurbildu ziren Nerea Mendizabalaren hitzaldira; bertan, 2 urteko umeak hezteko aholkuak eman zituen.

«Oso praktikoa izan zen, jendea gustura geratu zuen».

Ostiralean, *Urtu baino lehen* proiektzioa aurkeztu zuten DBHko ikasleek. Dina Bilbao Bidaia Bekaren irabazleek eurek aurkeztu zuten proiektzioa eta Josu Iztueta bera ere bertan izan zen. «Proiektzio oso ikusgarria izan zen, argazki eta paisaia ikaragarriak ekarri zituzten; ikasleak oso gustura geratu ziren». Igandeko ibilaldiak itxi zuen Kultur Astea. «Eguraldi txarra izan zen; hala ere 35 lagun irten ziren», azaldu du Zugastik.

Webgunean ikusgai

Zuzendariak aurreratu duenez, Kultur Astearen informazioa webgunean (www.uzturpe.net) izango da eskuragai. «Hamaikagarrenarentzat prest gaudu», gaineratu du Zugastik.

Bigarren urtez Sendi Ekintza Elkartearen Eguna antolatu dute

Ibarra » Larunbatean izango da San Bartolome plazan atonduko duten karpan; «adin guztiek» izango dute lekua festan.

ERREDAKZIOA

Datorren hilaren 6an, larunbata, Sendi-Ekintza Elkarteak bere Eguna ospatuko du. Ibarroko plazan bertan egingo dituzte ekitaldi guztiak, bigarren aldiz. Karpa erraldoi bat muntatuko dute horretarako.

«Adin tarte guztiak lekua» izango dutela ziurtatu dute elkartetik eta herritar guztiak gonbidatu nahi dituzte, bide batez, festara. Krosean iaz parte-hartzea handia izan zela gogoratu dute eta aurten ere horrela izatea nahi dute elkarteko kideek.



Iaz egin zuten lehen aldiz Sendi Ekintza Eguna Ibarroko plazan. I. TERRADILLOS

Festa egun osoan zehar

Iazkoan eguraldia izan zen protagonistetako bat, euria eta hotza izan baitziren nagusi. Aurten errepikatuko ez denaren esperantza dute. Eguna 11:00etan hasiko da umeentzako tailerrekin, aurpegi marrazketa eta xaboi ponpak, esaterako. 12:45ean haur jolasak hartuko dute lekuko eta 15:30ean *Eskoba* txapelketa egingo dute. Bertan parte hartzeko izena elkarte

bertan eman daiteke aurretik edo egunean bertan. Lehenengo hiru sailkatuentzat sariak egongo dira.

Herri krosean, lau mailatan banatuta

Arratsaldean, 16:00etan, gaztetxoak lasterketa hasiko dira, herri krosean. Lau mailatan banaturik egingo dute ibilbidea: 2002-2003 urteetan jaiotakoek ibilbide motza egingo dute, (400 m.); 2000-2001 urte-

» EGITARAUA

- **11:00.** Tailerrak haurrentzat: aurpegi margotzea, xaboi burbui-lak.
- **12:15.** Haur jolasak.
- **15:30.** *Eskoba* txapelketa. Izenematea, aurretik, elkartearen jarritako orrian, edo egunean bertan. Lehenengo hiru bikoteentzat sariak izango dira.
- **16:00.** Kros herrikoia.
- **17:30.** Txokolatada.
- **18:00.** Sari banaketa.
- **18:30.** Sagardoaren ziriaren irrikiera. Luntxa denentzat, eta bertsolariak, musika...

etan jaiotakoak ondoren irtegaro dira (800 m.); 1998-1999 urteetan jaiotakoak ondoren irtegaro dira (1.400 metro egin behar harko dituzte eta azken mailan 1997-1996koak ariko dira. Azken hauek 2.400 metro egingo dituzte.

Lasterketaren ondoren, sari banaketa egingo dute. 18:30 elkarte-txiriaren irrikiera egingo dute. Bertan, bertsolariek alaiko dute festa, guztia sagardoaz bustita, noski.



Julian Goñik «omenaldi xumea» jaso du

GAZTELU » Gazteluko Udalak pasa den larunbatean zinegotzi izandako Julian Goñiri omenaldi xumea eskaini nahi izan zion bertan egin dako lanarengatik —irudian—. «Dagoeneko urtebete igaro da gure ondotik joan zela» adierazi zuten Udal arduradunek; horregatik omendu zuten «faltan botatzen dugulako lagun bezala, zinegotzi bezala eta batez ere pertsona bezala». HITZA

Neguko hotzen amaiera eta loratze garaia ospatuko dute

Gizartea » Kristautasunaren altzoan loratutako Agate Deunaren usadioak badu bestelako sustrairik ere.

ERREDAKZIOA

Agate Deunaren bezperan, bihar, Tolosaldean eta Leitzaldean kalera irtengo dira hainbat haur, gazte eta heldu. Bertsoak, koplak edo kanturak abestuz kaleetatik edo baserrietatik barrena ibiliko dira puska biltzen.

Ikaztegiatan, emakumeak

Neguko hotzak pasatzean loratze-garaia iristean da. Ernalkuntza honi gorazarre egitea omen zen jai hau ospatzeko euskaldunek zuten arrazoietako bat. Ondoren kristautasuna iritsi zen; Agate Deunaren bezpera.

Otsailaren 4ean kalera irteteko arrazoiak ezin dira multzo bakarrean sartu. Ikaztegiatan emakumeak ibiliko dira kantuan adibidez. Alegian, Txintxarri abesbatza-koek 50. urteurrena ospatzen jarraituko dute, oraingo honetan Zazpi Astoren Gainean bertso eskolakoekin batera irtengo dira kalera. Asteasun euskal presoan eta euren senideen alde elkartuko dira biharko egunean, kantuan elkartasuna azaltzeko asmoz. Leitzan, Ibarren, Tolosan... bakoitzak izango du zer ospatua eta zer aldarrikatua otsailaren 4ean.

Zizurkilen 'Hitzetik Hortzera'

ETBko *Hitzetik Hortzera* saiokoa Zizurkilgo San Millan eskolara joan ziren atzo. Bertan, 5. eta 6. mailako ikasleak Agate Deunaren koplak kantatzen grabatu zituzten. Bihar, hilaren 4ean, emango dituzte irudiak.

» EGITARAUA

Albiztur

■ **10:00etan.** Eskolako haurrak, irakasleak eta gurasoak kantuan irtengo dira goizean. Herri guztian barrena ibiliko dira makilak eskuan dituztela.

Alegia

■ **19:00etan.** Txintxarri abesbatza-ko eta Zazpi Astoren Gainean bertso eskolako kideak elkarrekin kantuan eta bertsoan aterako dira Larraitz auzotik, Kurpil tabernaren ingurutik. Herriko triktilari eta pandero joleen laguntzarekin Alegiako etxe eta zoko guztiak zeharkatuko dituzte, herriko plazan amaituko dute.

Anoeta

■ **15:30etan.** Herriar talde batek antolatuta kantuan baserrietara joango dira herriko plazatik irtenda.

■ **18:00etan.** Anoetako plazan elkartuko dira berrira, oraingo honetan kalez-kale ibiltzeko.

Asteasu

■ **15:30etan.** Herriko plazan elkar-

tuko dira kantuan irteteko. Bilduta-ko dirua euskal presoentzat eta beraien senideentzat bideratuko dute.

Ibarra

■ **18:30etan.** Ibarra-ko Hauspoa Kultur Elkarteak Ibarra-ko anbulategian bildu eta Izaskun auzoan zehar izango dira kantari, honako ibilbidea eginez: Etxeberritxo, Elorbe, Palazioetxe, Artetxe, Izaskungo Plaza, Elutzun, Txulone, Bidabe, Aldani, Intsalus, Bizkaitxe, Zumartetxe, Arginartetxe, Ibarburu, Ibarrodo eta Bizkardo.

Ikaztegiata

■ **15:45etan.** Herriko emakumeak kantari aterako dira baserri-zaserri EskolatikO aterata.

Leitza

■ **Goizean.** Ume eta gaztetxoak herriko etxeetan ibiliko dira eskuan. Arratsaldean baserri-zaserri ibiliko dira.

■ **18:00etan.** Plazan elkartuko dira nahi duten guztiak, txistulariekin eta bertso eskolako bertsoariaren

batekin batera, kantari ibiliko dira. Ondoren merienda izango da.

Tolosa

■ **19:30etan.** Lizardi elkarte-ko kideak elkarretaratzea egingo dute udaletxe aurrean, Pello Odriozola-ren askatasuna eskatzeko. Elkarretaratzea kantuekin amaituko dute.

■ **19:00etan.** Ero-Etxe elkarte-ko kideak elkartetik atera kaleetan barna ibiliko dira kantari. Elkarte-beretan amaituko dute ibilbidea.

Villabona

■ **15:00etik 17:00etara.** Jesusen Bihotza ikastolako umeak LH6 eta DBH1 eta 2ko ikasleek kantari aterako dira kaleetan zehar.

Zizurkil

■ **16:30etan.** San Millan eskolako haur eta gurasoak kantari aterako dira. Auzo eta kaleetatik ibiliko dira eta ibilbidea 20:00etan bukatuko dute. Biltzen duten dirua hirugarren munduko proiektuetan lan egiten duen elkarte batera bideratuko dute.

Tolosako San Blas auzoko jaien agurra

ERREDAKZIOA

San Blas egunarekin amaituko dira gaur izen bereko auzoko Jaiak. 11:00etan meza nagusia egingo dute, bertako produktuak bedein-

katzeko. 12:30ean Toka Txapelketa burutuko da eta 18:00etatik aurrera Elustondo anai-arrebak trikiti doinuak eskainiko dituzte jaiari agur esateko.



Zizurkilen, San Millan eskolan, Agate Deunaren koplak grabatu zituen 'Hitzetik Hortzera', HITZA

Hilberriak eta urteurrenak

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldekohitza.info / Tel.: 943-65 56 95

ASENSIO SUDUPE ORMAZABAL

Geure bidea zuk guk bat eginez denon artean BIDEA EGINEZ

Gure bihotzean jarraituko duzu

Bidea Eginez-eko zure elkarte-kideak

ZUMARRAGA 2010eko otsailaren 3a

MIRENTXU IMAZ GOIKOETXEA

Laskorain Ikastolako kideen izenean

TOLOSA 2010eko otsailaren 3a

JOSE MARIA JAUREGUI OYARBIDE

JAUNA

(Itzas Merkataritzako Kapitain ohia)

Atzo hil zen, 76 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.

- Goian bego -

Bere emaztea: Ixabel Bastarrrika Usandizaga, seme-alabak: Jon eta Baktxo, Amaia eta Alfonso; bilobak: Estibaliz eta Isaak; anaiak: Javier eta Mabel; eta gainerako ahaideak. Haren animaren alde otoitz bat eskatzen dizue eta arren elkar zaitzela GAUR ASTEAZKENA, arratsaldeko ZAZPIRETAN Tolosako CORPUS CHRISTI parroki elizan, egingo den hitz-lanarekin. Aldez aurretik, mila esker.

Oharra: Gorputz bella Tolosako FUNERARIA VASCONGADA Tanatorioan egingo da, gaur goizeko 11:00ak arte. Familiak ez du inor hartuko.

TOLOSAN, 2010eko otsailaren 3an

I. urteurrena

HILARIO NAZABAL AMUNDARAIN

2009ko otsailaren 3an hil zen Zaldibian, 90 urterekin

Emaztea: Anttoni Iztueta; seme-alabak eta gainerako ahaideak.

Urteurreneko meza IGANDEAN, otsailak 7, eguerdiko HAMABIETAN egingo da Zaldibiako Santa Fe parrokiari. Aldez aurretik mila esker.

ZALDIBIA 2010eko otsailaren 3a



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Asier Imaz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdia

- **Tolosa.** Ipuin kontaketa bihar, hilak 4, Haur Liburutegian 18:00etan.
- **Tolosa.** Alde Zaharreko bizilagunen bilera bihar, hilak 4, Santa Maria parrokiako etxean, 20:00etan, errehabilitazio planari aritzeko, besteak beste.
- **Villabona.** Biltoki jubilatuen elkar-terren urteko batzarra etzi, hilaren 5ean, Txermin Biltokian 17:30etik aurrera.
- **Villabona.** Berazubiko igerilekuko abonatuaren bilera larunbatean, hilak 6, Kultur Etxean 20:00etan. Antolatzaileek igerilekuaren etorkizunaz hitz egingo dutela argitu dute.

Antzerkia

- **Tolosa.** Gorringo antzerki taldearen *Xabineitor* antzezlanaren etzi, hilak 5, Leidor aretoan 20:30etik aurrera.

Hitzaldia

- **Tolosa.** Juan Bautista Aranzaberen hitzaldia Inauteriarri buruz hilaren 5ean, etzi, Txinparta elkartearen 20:00etan.

Inauterriak

- **Lizartza.** Etzi, hilaren 5ean, 14:00etatik 15:00etara herriko eskolak antolatuta mozzorro festa egingo dute. Jarraian kalejira ere egingo dute herrian zehar.
- **Tolosa.** Inauterietako Haur Jaialdia izango da larunbatean, hilaren 6ean, Leidor aretoan 16:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** M.I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.
- **Lekunberri.** Mendia M. I. Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.




Bigarrenengan eraman dute Gabonetako saria

VILLABONA • Oria Merkatarri Elkartek antolatu zuen Gabonetako Zozketaren irabazlea Rosi Vaz izan da. Atzo jaso zuen saski ederra 06533 zenbakia erakutsi ondoren. Gabonetako zozketan zenbaki bat atera zuten lehenik, baina hilabeteko epean irabazlerik agertu ezenez, bigarren en-

bakiak jaso du saria. Rosi Vazi Villabonako Oria Merkatarri Elkarteko kideek eman zioten saria. Saski ederra eskuetan zuela gustura agertu zen Rosi Vaz. Merkatarri Elkartek zozketekin jarraitzen duela ere azaldu behar da, hileroko 150 euroko baleak banatzen baitituzte. **ENERITZMAIZ**

A Agurrak



Zorionak!
Ander Mujika Aurkia (Abaltzisketa). Gaur 5 urte. Muxu pila bat denon partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZ Aren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZ Aren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

bertako egunkaria
egin zaitez harpidedun!

902-82 02 01

(Astegunetan 08:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldeko-hitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Araba etorbidea 5 behea • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31180 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

| | |
|-----------------------|----------------------|
| • Izen-abizenak: | • N A : |
| • Lanbidea: | • Jaioteguna: |
| • Helbidea: | • Herria: |
| • P.K.: | • Tel.: |
| • Posta elektronikoa: | |
| • Kontu zenbakia: | <input type="text"/> |